

## **BILBO, LEHEN PLANOAN**

Duela 80 urteko Bilbo: mundu bat jende, bizipen, adore eta estuasun. Milaka eta milaka iheslariren helmuga eta militar kolpisten jomuga. Eusko Jaurlaritzaren egoitza eta tropen joan-etorrien lekuko. Atzeraguardia. Kalez kale, etxez etxe, pertsonaz pertsona osatutako erlauntza bizia. Eta erlauntza horren barruan, lehen planoan, txiki geratutako hiri handia, taupaka.

### **1. IBILBIDEA / 1ª LÍNEA:**

#### **UMEAK / NIÑAS Y NIÑOS**

Gerra ez da frontea bakarrik, eta Habana ez dago Kuban beti. Militar kolpistek Gipuzkoa eta Bizkaia herriz herri okupatu ahala, gero eta uharteago bilakatu zen Bilbo. Eta haurtzaindegi erraldoi. Hegazkin aleman eta italiarren bonbek haurrok hilko zituzten beldurrez, 5 eta 12 urte bitarteko milaka eta milaka adingabe ebakuatzea erabaki zuen Euzko Jaurlaritzak. Hala karriatu zituzten *Habana*-k eta beste hainbat ontzik milaka eta milaka haur –1937ko maiatzaren 6tik ekainaren erdialdera bitartean, 19.144 ume–, gerrarik gabeko lurretara. Ibilbide honek itsasoa zuen abiapuntu, eta belaunaldi oso bat zeharkatu zuen.

### **2. IBILBIDEA / 2ª LÍNEA:**

#### **EMAKUMEAK / MUJERES**

Emakume oso gutxi ageri da 36ko gerra fronteko agiri eta argazkietan. Bilboko kaleetan, zaintza guneeetan eta tailerretan, aldiz, asko. Ageri direnetako batzuk, beren herrietatik egotzi zituzten kolpistek. Besteak, umeak eta ahal zuten guztia hartuta ihes eginak ziren. Bakarren batzuk, Bilbo bertako ospitaleetan erditu ziren, etxetik urruti. Jazarpen sexual latza nozitua zuen euretako hainbatek. Ezin jakin zenbatek. Horretaz hitz egitea ez baitzen kontua. Gizonena zen mundu hura, eta gizonen zerbitzurako heziak zituzten andre haietako gehien-gehienak. Halaxe ikus ditzakegu orduko prentsan, argazkietan eta agirietan ere.

### **3. IBILBIDEA / 3ª LÍNEA:**

#### **ORDENA PUBLIKOA / ORDEN PÚBLICO**

Gerra beteak ezusteko egoerak eta bisitariak ekar ditzake beti. Baita duela 80 urte ere. Ohi baino milaka pertsona gehiagorekin bizitzera ohitu behar izan zuten bilbotarrek; hiri arrotz batean ez galtzen ikasi behar izan zuten errefuxiatuek. Batzuen zein besteen bizikidetzara arautzeko eta segurtasuna bermatzeko ahalegina ez zen txikia izan. Prentsak zabalduzako informazioa ere kontrolatu egin zen. Arerioak etxean bertan egon zitezkeen, izan ere, sator lanean, jende olde kontrola ezinaren zurrunbiloaren babesean.

### **4. IBILBIDEA / 4ª LÍNEA:**

#### **EGUNEROKO OGIA / EL PAN DE CADA DÍA**

1937ko udaberriak aurrera egin ahala, janari eskasia eguneroko ogi bihurtu zen Bilbo setiatuan. Janari gehiago lortzea eta zegoena behar bezala banatzea, lehentasuneko gaia zen. Itsasora begira bizi ziren hiriburuan pilatutako zibilak, kolpistek ezarria zuten blokeoa noiz hautsiko; noiz lehorreratuko txitxirioak, irina eta gainerakoak; noiz uxatuko gosea, azken batean. Gose saltsa horretan egosi ziren jangela publikoak, arrazionamendu txartelak, erosketa baleak... Baita kolpisten aldekoentzat ere.

### **5. IBILBIDEA / 5ª LÍNEA**

#### **KULTURA ETA ASTIALDIA / CULTURA Y TIEMPO LIBRE**

Salbuespeneko giro betean izanik ere, hiriak taupaka segitu zuen. Futbol partidak ikusteko, musika kontzertuak entzuteko, egunkaria erosteko, liburuak irakurtzeko ohiturari eutsi zion hiritar askok. Eta hainbat ekimen garrantzitsu jarri ziren abian: unibertsitatea, euskarazko kazeta, orkestra propioa... Duela zortzi hamarkadako ondarea dira proiektuok ere. Baita Jaurilaritzak ebakuatu ahal izan zituen artelan guztiak ere.

## **6. IBILBIDEA / 6ª LÍNEA:**

### **ETA HALA ETA GUZTIZ ERE, GERRA / Y SIN EMBARGO, GUERRA**

Carlton Hotelean du bihotza bide honek. Bertan ezarri ziren Euzko Jaurlaritzaren Lehendakaritza eta Guda Zaingoa, Jose Antonio Agirre lehendakaria buru zutela. Kolpistek aurrera egin ahala hiria bete zuten iheslarienezako eta bertako zibilentzako babesleku izateaz gain, izan ere, jomuga gutzizatu ere bazen Bizkaiko hiriburua. Horren erakusgarri dira jasandako erasoak, blokeoa eta mehatxuak; mobilizatutako tropak; eta hiriburuaren konkista ekiditeko abiarazitako ingeniariak lan erraldoia: Bilboren defentsarako *Burdin Hesia*. Hesiaren diseinatzaileak berak, Alejandro Goikoetxea ingeniariak, erakutsiko die erasotzaileei nondik zulatu hesia. Traizio horrek oparitu zuen konkistarako atearen giltza frankistei. 1937ko ekainaren 19an sartuko dira ate horretatik, Bilbo erabat konkistatzeko. Gerra beste fase batera pasarazteko.